

**FRANTZISKO LAPHITZ ETA JEAN-PIERRE ARBELBIDE
JAUNEI OMENALDIA**

Irisarri, 2005-VII-21

LAPHITZ-ARBELBIDE: BI IDAZLE EUSKALDUNEN HARIA

Agurra

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Arratsalde on guztioi!

Egun, urtero legez, Euskaltzaindia Iparraldeko Euskal Herrira dator, euskararen alde lan egindako bi idazle behenafarrak ospatzeko asmotan.

Laphitz eta Arbelbide, Arbelbide eta Laphitz, tentazionea izan daiteke urrunean eta aparte ikusteko bi horiek, duela ehun urte hildako idazle ihartuak balira bezalaxe.

Kronologiaz hala bada ere, letraz eta lumaz ez da horrela. Behin baino gehiagotan azpimarratu dut gogo hau, Akademiak berak sarritan errepikatu duena. Izan ere, Laphitz eta Arbelbide hitzaren maisuak dira, hain zuzen ere, euskal hitzaren maisuak.

Mezua eta edukia, egia da, aspaldikoa eta zaharkituxea izan dakiguke. Azala eta forma, aldiz, bete-betekoa, euskararen ereduak ematen baitizkigute idazle hauek. Horra hor, garaiotan ere, konturik beharrenak zaizkigunak.

Arean ere, Laphitz eta Arbelbide Iparraldeko euskal letretako loratzearen lekuko ezin hobegoak dira, XIX. mende hondarrean eta XX. mende hasieran euskara goi mailara eraman zutenak, herritartasunaren alderdia zokoratu gabe.

Hor dira zinezko literatura baten ezaugarriak, kalitatea eta herritartasuna lotzen dituenak, inolako lotsa eta heraberik gabe.

Baditugu gaur horietan arituko diren adituak, besteak beste:

1. Piarres Charriton: «Frantzisko Laphitz –Arriadaren bizia eta lanak»
2. Pello Salaburu: «Euskara batua eta euskara ereduak»
3. Xipri Arbelbide: «Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak»



Hortaz aparte gure ohitura den bezala, Jean Haritschelarrek egingo du berikihil den Pierre Duny-Pétreren euskaltzain urgazkearen hilberri-txostena («Pierre Duny-Petre gogoan»).

Bukatzeo halako bitxikeria. Laphitzen *Bi saindu hescualduen bizia* nire eskuetara etorri zen, duela denpora gutxi, frantses hizkuntzaren jantziaz. Izena zuen *La vie de deux saintes basques: Saint Ignace de Loyola eta Saint François Xavier*; itzultzailea, Mayi Milhou eta argitalpen data, 2002. urtea. Bakan eta noizbehinka bakarrik gertatu da historian zehar halako euskal liburak frantsesez agertzea. Horrek erakusten du, beharbada, liburu horren freskotasuna eta menturaz, ikerleek arakatu beharko duten bestelako ildo, alegia, gaztelaniazko bertsioarena, noizbait norbaitek ondu omen zuena.

Hitza dute orain gaurko hizlariek. Nire aldetik, Arbelbideren aipua, *Igan-dea* liburuan euskararena egoki zertzen duena:

Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure elheak bethi chuchen adosturen dire, hala-nola ehaile trebearen eskuetan irazkia eta bilba elkharrekin trebeskatzen baitire, bata bertzeari lotzen, josten eta tinki-tinkian oihal hazkar atheratzen.

FRANTZIZKO LAPHITZ-ARRIADAREN BIZIA ETA LANAK

P. Charriton

Egun hemen Irisarrin ospatzen dugun mendeurrena lehenik Frantzizko Laphitz euskal idazle handiaren ohoretan da eta haren bizia eta lanak labor biltzea niri dagokit. Baina aitzinetik galde bat egin dezake zuetarik batek edo bestek. Zertako aipa Laphitz Irisarrin ezpaitzen Laphitz hau irisartarra. Eta galde horri nahi nioke berehala ihardetsi. Zeren Irisarrin Laphitzenaz bestalde XIX. eta XX. mendeetan egin baita euskararen alde lan eder asko aipatzea mezezi duenik.

Zertako Irisarrin?

Gogora dezagun nola 1813-1814eko urte ilunetan Salvat Monho izturiztar olerkari handi eta Irisarriko erreterak gogorki gaztigatu zituen Napoleon I. enperadore gaiztaginak leher egin zuelarik, azkenean, harekin herritik ihesi joan ziren Larraidy errient idazkari baliatzailea eta haren bizpahiru irisartar kide bakarrak.

Oroit ere mende erdia geroago Pierra Haristoy aihertar historialaria Zalgizetik landa, Irisarriko erreter egon zela Zibururat joan aitzin eta hemen berean bere ikerlanez bestalde elizaren eskola berriak egin zituela.

Oraino hurbilago eta gutarik batzuen oroitean, ezin dugu ahantz Irisarriko eliza dorrea berregin zuen Lukuze Kattilaeneko seme Aguerre jaun erreterak, geroxeago aita Gaxitegirekin *Laborantzako liburu* berri aberatsa utzi zigula.

Ez dugu ere ahanzten ez Joseph Gosterratxu bikarioa gazteen laguntzailea «Nevadara joan nintzen» kantu aipagarriaren sortzaile bipila (ala bipilegia) eta haren ondotik berriz, Afrikatik itzuli ondoan Erramouspe erreteraren laguntzaile urte t'erdia lan egin zuen Jean Hiriart Urruty euskaltzain hazpandar zena.

Are gutiago aipatu gabe utz ditzaket Irisarriko hilerrian ene askazi maite batzuen ondoan berpiztearen zain dauden Larrainbordako seme miriku Michel

Mendi jauna, haren andrea Katrina Markesuzaa eta Klaudio Harluxet suhi zena euskal kulturaren mundu osoan bere itzal indartsua gaur arte zabaltzen duena.

Jakin bezate beraz gaur gure herri ondarea zaindu nahi omen duten herri gizon guziek izan dela eta badela Irisarrin harri zaharrez besterik, badela euskara.

Ezen Irisarri Larrainbordatik hurbil dagoen Behardizaharrean sortua zen gure ustez Bernard Laphitz Frantzizko Laphitz (1832-1905) honen aita. Irisarritik ordea Arizkunera iraganik, ez genekike xuxen zergatik, han ezkondu zen Maria Josefa Arriadarekin eta 1832ko buruilaren 30ean herriko elizan bataiatu zuen Tomas Iribarren jaun erretorak haren semea Frantzizko Esteban Laphitz izendatu zutena.

Beste haurrik izan ote zuten Arizkunen behar liteke ongi ikertu. Gaur oraino egin ahal ezin dugun lana. Bakarrik idazki hauek argitaratu aitzin hitzeman digute baztandar euskaltzale adiskide batzuek ikerketa hori egingen ditugela eta jakinaraziko ere Laphitz-Arriada familiaren ondokorik ba ote den Baztan aldean.

Guhonek ordea Irisarrin berean Herriko Etxeko andere axuant eta idazkariaren eta haien bitartez andere Jeanne Urruty Erretegiko Laphitz familia-koaren laguntzari esker aurkitu ditugu zenbait xehetasun.

Gaur ordea xehetasun horiek oro utziko ditugu besteak bezala datorren *Euskera* agerkarian agertzeko. Eta hemen labur erranen dugu Frantzizko Laphitzek Larresoroko eta gero Baionako Seminarioan apezteko eskolak egin zituela eta 1857an apezte zela eta Baigorriara igorri zutela apez laguntzaile eta hortik Alzaira erretor 1866an. Orduan zuen idatzi eta argitaratu Baionan 1867an *Bi saildu heskualdunen bizia* hots San Iñazio Loiolakoaren eta San Frantzizko Xabierrekoaren historia. Horretaz erranen dizue erran behar dena Pello Salaburuk. Nik aldiz, gogorazi behar dizuet Altzaitik Betarramera joaita erabaki zuela Mixel Garikoitzek sortu ordenan sartzeko eta horrela Ameriketara saldoka joaten ikusiak zituen gure mendien bi aldetako euskaldunen apez izateko gisan.

Bera baino lehen joanak ziren jadanik Garikoitzek igorriarik zenbait Betarramista Montevideora eta Buenos Airesera hogoi bat urte lehenago, baina, aita Laphitzek izan zuen halere zer egin: lehenik Montevideoko portuan berean euskaldunen biltzen hasi zen eta *El Cerro* deitu munho gainean *Euskaldunen Eliza* deituko den eraikina altxatu zuen. Bestalde, Uruguaiako zelai zabaletan ere ibili zen bere herritar euskaldunen ikusten eta ahalaz beren aitzineko fededun urratsez ohartarazten. Geroztik misioneak antolatuko ditu apez lagun batzuekin euskaldunentzat Uruguain bezala, Argentinan ere, Buenos Airesetako euskaldunen San Juan elizatik harat bereziki. Haren fama hedatuko da alde orotara eta adibidez Paraguaiko errepublika osoa suntsituko duen gerla izigarriaren ondotik apez soil horrek ararteko lanak egingen ditu eta

bazterrek lasaitu eta Asunción hiri nagusiko apezpiku egin nahiko dute baina ez du onartuko gure gizonak han baitauzka deika ari Buenos Aireseko euskaldunak.

XX. mende hasieran alabaina Argentinako euskal elkarte zenbait ari dira hazten eta beren indarrak biltzen hala nola *Laurak bat*, *Euskal Etxea* edo *Centre Basque Français*. Hor du erakutsiko aita Laphitzek oraino bere bitartekari dohain berezia. Errekaborde zalgiztar puxantaren eta beste dirudun eta fededun andere zenbait bildurik *Euskal Herrietako Zazpiak Bat* eginik sortuko dute Buenos Airesetik 35 kilometrotan dagoen Llavalloleko zelai zabalean hiru adar bederen izanen dituen obra nagusia : euskal gizon eta emazte xaharren etxe berezia, Angeluko serorei dei eginik kudeatuko dutena, ikastegi bat neska umetzur eta besteentzat, hau ere serora beren gain, ikastegi bat eta laborantza eskola bat mutikoentzat Baztan Lekarotzetik Laphitzek deituko dituen Kaputxinoen esku izanen dena.

Gaur ere Euskal Herritik beren Ameriketako ahaide ahantzien ikustera jotzen diren herritar ainitzek ezin asmatuzko obra horiek oro ikus ditzakete. Baina harritzeko da Angeluko lehen bost serora euskaldunak heldu baitziren Buenos Airesetara 1905 urriaren 26an, sekulako jendeak Saindu famarekin ehorztera zoazelarik, aita Frantzizko Laphitz-Arriada serora haiek beren herritarren laguntzera Ameriketaraino deitu zituen apez hura bera.

Bibliografia

FRANTZIZKO LAPHITZ: *Bi saindu heskualdunen bizia*, «Klasikoak», Josu Pika-bea.

PIERRE LHANDÉ-HEGUY (s.j.): *L'émigration basque*, Paris, 1910

OSCAR ALVAREZ GILA: *La contribución europea a la iglesia en el Río de la Plata : la presencia religiosa vasca (1835-1965)*, EHU, tesi doktora, Portugalete, Bizkaia, 1997

Jarraiko argazkiak: Jeanne eta Felix Dourisbarre Janbon F. Laphitzen iri-sartar bilobek emanik.



Aita Frantzizko Laphitzen argazkia.



Horren iloba Ameriketako apezaren argazkia.

Pio-Saint Léon.

*François Laphitz, membre du Sacré Collège de Tours de Bitarram,
missionnaire à Montevideo; humblement prosterné aux pieds
de sa Sainteté, la supplie de vouloir accorder une
bénédiction spéciale aux membres de sa communauté, à ses
parents, à la nation Basque, à la Famille Lauquier,
d'Assarry, et à la famille Jackson de Montevideo.*

*Le 2. Août 1874
Benedictus Laphitz et ses parents
Laphitz St. L.*

Euskal Nazioarentzat, 1874ean (sic) Pio IX. Aita Sainduaren ganik aita Laphitzek Erroman erdietsi benedikapena.



Jacqueline Bordenabe, Angeluko serorak, igorri Argentina Llavalleko *Eskual Etchearen* argazkia.





EUSKARA BATUA ETA EUSKARA EREDUAK

Pello Salaburu

Ez da ukatzen ahal gure hizkuntza batasunaren bidearen nondik norakoak zehazten hasi zelarik, eta hartara bere indarrak lanean jarri, hizkuntzaren eguneroko erabilerak anitz irabazi duela. Ezin baitzen bertzenaz ordura arte bezala segitu. Hizkuntza hila legoke, edo gutienez ahuldua eta zuhail, indargabetua, egungo mundu moderno honek eskatzen dizkion betekizunei aurre egiteko ez gai. Horretan irabazi dugu. Baina Laphitzen liburuaren protagonis-tek bezala, nahi nuke ez beha egin lanari, baizik egitekoari. Ez gibelerat, bai- zik aitzinerat.

1968aren inguruan hasi zen bide hura. Ordea, bazterrean bildu guztiak ez dira beti loreak izan, eta zenbaitetan eskuak ziztakaturik gelditu zaizkigu. Hau hala gertatu da ez bakarrik Euskaltzaindiak, Mitxelena zenaren eskutik, era- kutsian utzi zuen ereduaren kontra batzuek beren indarrak suharki jokatu bai- tztizuten, ez. Horregatik ere izan bada ere, ez horregatik bakarrik, erran deza- gun garbi.

Euskara batuaz eta euskararen batasunez mintzo gara behin eta berriz. Eta gai honen inguruan alde bateko eta bertzeko iritziak sortu izan dira historian zehar. Gehienak alde, idazle gehienek beldurrik gabe onartu baitute batasun bidea, gure hizkera erorbidean ez uztekotan ez baita, haien ustetan, bertze hau- turik egiten ahal. Zernahi gisaz, alde izanik ere, haien artean ere entzuten ha- siak gara aspaldixko hizkuntzaren batasuna –itxuraz bada ere– nolabait zalan- tzan jartzen duten ahotsak: ustez, nonbait, euskarak kolorea galdu duen, beldurrez gure baserrietako hitz jarioaren aberastasuna atzenduxe dugun, egun- go euskara batu hori, batua bai, baina batzuetan ez gehiago dela euskara idu- ri, haien aburuz. Batzuek, akiduratik hurbil ikusteraino ailegatu dira. Eta, dio- te, hori konpontzeko moduetako bat dugu herri hizkerara, herrietako mintzoetara, itzultzea, erran nahi baita, baldin gai izaten bagina, maila ba- tzuetan, gure baserrietan ibiltzen genuen euskara goxo eta hurbil hura egungo arlo landuetan ibiltzeko ere, orduan batasuna bera ere aberastuko genuke, eta bere on bidera ekarriko mintzaira batua.

Ez dut uste, hala ere, gauzak hola ikustea arras xuxen den. Hori onartzetik ilki diren ondorioetako batzuk, bederen, ez baitira batere zuzenak. Anitz herri eta eskualdetan herri aldizkariak sortu dira, eta joera bat nagusitu da, zenbait tokitan, eskribitzen diren testuak delako toki horri dagozkion euskara ezaugarriekin hornitzeko. Hola eman nahi zaio, antza, kolorea eta distira, kolorea eta etxeko ñirñira galdu duen hizkerari. Ez dakigu, ordea, nolakoa den kolore berri hori, zaharraren gisakoa edo osagarriak nahasiz sortu berri den kolore zirtzikatua. Zeren, jokamolde horren izenean pare-parean ikusten ahal baitira, inolako ahalkerik gabe, aski modu harroan gainera, delako herri edo eskualde horri legezkiekeen berezko ñabardurak –pentsa dezagun halakoak direla–, eta haren ondoan delako herri edo eskualde horretako solasean sekula santan inork ere aditu ez dituen itzuliak, hitzak, eta esamoldeak, arras tarrotuak, batek ez dakiela nondik atera diren, ez bada mintzaira goxatu nahi duen norbaiten gogo biziaren beroaldiren baten ondorio, ohartu gabe, mintzaira goxatu beharrean, usu arras desitxuratua gertatzen den hizkera mota berri bat sortzen ari garela. Hola, hobetu nahi den eredia, hobetu beharrean, behar bezala deboilatu eta nahas ageri zaigu. Hautatu den erremedioak, orain, makurrago bihurtu du salatu nahi den gaitz eta eritasuna.

Ez da gutitan gertatzen erraten ari naizen hau. Aski da, hartara, aldizkari horietako batzuk begi kritikoeekin irakurtzea: berehala atzemanen dituzu kontraesan bizkorak, eskualdeko mintzaira umetik barneratu duen betiko hiztuna lerro batean eroso sentiturik ere, aldamenen den bertze paragrafo batetik idazleak ostiko ematen diola sentitzen baitu, iduriz. Gisa honetara, *arrenkura* hautatuko du idazleak, *arrangura* arautua bazterturik, *arrenkura* baita, ez *arrangura*, herri horretako hizkeran ibiltzen dena. Eta *afera* paratuko du, hurbildu nahian hola elkarren artean papereko euskara, batetik, eta betitik han ibili den mintzoa, bertzetik. Egoki ikusiko du *doae* ibiltzea, eta ez *doa*. Baina hori egin bezain fite ahalke gabe ikusiko ditugu hor berean *beraien*, *aurreko*, *bertan*, *erabiliko*, *ikasleentzat*, *barrena*, *etxerako*, *irakurri* edo *ordutegi*, aldizkaria argitaratzen den tokiko euskaran betitik *beren*, *aitzineko*, *han*, *ibiliko*, *ikasleendako*, *barna*, *etxeko*, *leitu* edo *lanordu* erran baldin bada ere. Eta lerro batean leituko dugu *herrie*, eta pixka bat beheitixeago, aski trankil gainera, *mendia*, inolako koherentziarik gabe, denak errebes eta oker paratuak. Beharrezkeriez betetako euskara hori ikusten dut nahaste baten iduriago, ibili behar den euskara egokiaren ispilu baino.

Baina ez dut, hasierako hitz hauekin, gai horren gainean mintzatu nahi. Kontua da hori, neurri batean segurik, gertatzen ari dela eta, ene ustez, gertatzen ari den hori sakonagoa den bertze zerbaiten seinale dela. Gure buruari galdegin beharko genioke zertaz gertatzen den hau gutzia. Zertaz den gertatzen batasun eredia eskura izanik, eta idazle gehienek batasun horri eutsirik ere, zertaz gailentzen diren bat-batean bertze eredu batzuk, batasunetik hain urrun gelditzen direnak.

Zergatia, hain zuzen ere, batasun ereduari dagoke: ez, haatik, Euskaltzaindiak urteetan zehar definitu duen batasun ereduari. Ez hor ezinbestean. Arazoa, ene iduriko, jendeak praktikan ibiltzen duen batasun ereduari bilatu behar dugu, Akademiak eman ereduari baino gehiago. Euskaltzaindiak definitu ereduari, eta jendeak –batasunaren aldekoek, erran nahi dut– ibiltzen duena ez baita arrunt berdina. Ez gara, beharbada, ongi ohartu honi. Euskaltzaindiaren batasun ereduari, bistan da, kritika daiteke, eta alde on guztiekin batera bere alde txarrak ere izanen dituela onartzen ahal da inor ere mindu gabe. Kontua da Euskaltzaindiak batasun eredu baten proposamena egin duela urteen joan-etorrian, bai, baina gero idazleek batasun proposamena hori modu batera ulertu dugula, aise estuago den modu batera bakarrik. Adibide erraz batzuekin argituko dut hemen erran nahi dudana.

Euskalkien arabera, anitz hitz baditugu kontzeptu bera adierazteko: *behinik behin*, *behintzat*, *bederen*, *segurik*, *aments*, *bederik*. Horiek guztiak daude Euskaltzaindiaren ereduari behar bezala bilduak, modu batera edo bestera: *bederik* ageri da hiztegi batuan «gip» markarekin, *aments* ez da aipatzen, eta gainerakoak inolako markarik gabe bildu dira. Hortaz, horiek guztiak ditu eskura idazleak, euskara batuan eskribitzeko orduan. Galdera da, zernahi gisaz, zergatik nagusitu diren (aski dugu horretako datu baseak kontsultatzea) *bederen* eta *behintzat* bertze guztien gainetik. Aise gibelago daude, erabilerari dagokionez, gainerakoak: *behinik behin* aitzineko bi horiek baino hiru aldiz gutiago ibiltzen dugu batuan eskribitzen dugunean; *segurik* hamabi edo hamahiru aldiz gutiago; *aments* eta *bederik* ez dira ia ageri gaur egungo euskaran.

Ez dit inork ere azaldu beharrik hau hola gertatzeko arrazoi batzuk aski argiak direla: lehendabizikoa, hizkuntzak eta mintzoak aldatu egiten direla. Hortaz, ez dugu horregatik harritu beharrik, edo kezkatu. Bertze batzuetan hitz-tun gehienek ibiltzen dituzten hitzak nagusitzen dira, edo idazle ezagunenek gogoko dituztenak, edo argialetxeetako testu zuzentzaileek onesten dituztenak («hau zuzena da, bertze hori kendu, otoi!»), edo telebistako esatariek gehien maite dituztenak. Hau da gure kasuan ere gertatzen dena. Kontua da, ordea, niri segurik kezka sortzen zaidala: *segurik*, *bederik* eta *aments* bezalakoak baztertzen ditugu praktikan, eta horiekin batera bertze hainbertze ere, hala nola, *abade*, *abandonatu*, *abantzu*, *kasik*, *abonatu*, *adin izan*, *altxatu* (*gorde* adierazteko), *arotz* (*errementari* adieran), *kordokatu*, *irriemangarri*, *ahalke*, *baratu*, *parlantzuan*, *intziri*, *eroan*, *asko-gura*, *zelan* edo *larderia* bezalakoak, bakan batzuk aipatzekotan. Baina kezka sortzen zaidala diot, hori egin ondoren inolako gupidarik gabe ibiliko baititugu hitzetik hortzera *delegaritzea*, *baloia lapikoan*, *erremate*, *rehan* edo *berotasun asistentziala* bezalakoak. Holakoak, ongi dakigunez, ardura gertatzen dira, aski baita hartara agertze ttipi bat egitea telebista aitzinean edo maizkara gure eskuetara ailegatzen diren testuetan.

Jakina, hiztegia aipatu dut bakarrik, baina hiztegiari erran dudana gramatikaren bertze atalen gainean ere erran daiteke: neurri batean morfologian, baina batez ere esamoldeetan, eta sintaxi puntu batzuetan. Ez naiz luzatuko ho-

netan, aipatzen dudan arazo honek hainbertze ñabardura beharko bailituzke, eta hemen ez dut astirik horretan aritzeko orain. Kontua da, eta hori da hemen azpimarratu nahi nukeena, Euskaltzaindiak definitu duen ereduaren interpretazio bat egiten dugula, interpretazio batek hartu duela indarra, bat nagusitu dela praktikan egiten ahal ziren gainerakoen artean, eta hori ez dela gauza ona. Euskararendako ez da gauza ona. Interpretazio hori gipuzkeraren inguruan sortu da, ez dut uste inor ere samurtuko den hori errateagatik. Horrek guztiak badu, jakina, bere azalpena: hiztun gehien biltzen da eskualde horretan, gune trinko anitz han atzematzen dira, batasun eredu teorikoa handik hurbilago dago berze euskalki batzuetatik baino, eta ereduzko idazleen artean pisu handi dute gipuzkoarrek. Ez diegu haiei eskatuko haiena ez den mintzaira erabil dezaten beren liburuetan.

Kontua da, alabaina, mintzatzeko modu hau nagusitu dela eta olioa bezala hedatu gainerako euskalki eta hiztun guztien artean, euskara batuaren hautua egiten dutelarik. Horrek ere, ez bakarrik erdarak edo hizkuntza neketan ikasteak, horrek ere uste dut kendu dion hizkerari lehenago zuen kolore goxo hura, lehenago euskalkietan musika soinu bezala nabari zen doinu hura. Baina ez doinu hura ez kolorea ditu euskarak berreskuratuko honetaz guztiaz hausnarketa jabaldua egiten ez badugu, eritasunaren erremedioa ez baita herrietako txokokerietatik aterako. Txokokeriak txokokerien seinale dira, ez euskara on eta egokiaren seinale. Iduri luke batzuetan euskara gaitz bat hartua dagoela.

Eta honetara ailegaturik, baten batek galdegin dezake, arrazoi guztiarekin, ez ote garen hemen Francisco Laphitz omentzen ari, eta hala bada, zer duen honek ikusteko Arizkunen, nire sorterrian, 1832an sortu zen idazle eredugarri hark egin lanarekin. Ikusiko duzue nola baduen.

Ez dakit nik Laphitz sortu zelarik haren amak, Maria Josefak, zerurat altxatu zituen begiak, Loiolako sailduaren amak Inazio sortu zelarik egin omen zuen bezala, eta gero Bernardo senarrari zerbait erran ote zion. Loiolan gertatu bezalako zerbait, konparazione: «Seme hau ez da agian bertze semeak bezala aterako, eta bere amarekin agian laketuko zaio». Eta ez dakit hala gertatu zen, inork ere ez baitigu kontatu zer pasatu zen Laphitzen bizitzarekin. Badakigu Baztandik haurrean jin zela hona, Irisarri alderat, eta bistan da utzi dituen testuetan nabariago ikusten ahal dela Irisarriko euskara, Baztangoa baino, amagandik Baztango mintzoko hainbertze ñabardura hartu baditu ere. Gero, Loiolako Inazio eta Frantzisko Xabierrekoaren eredu segitu nahia zenez-edo, urrun joan zen, Hego Ameriketarat. Baina ez dut nire hitzaldia moldata Laphitzen bizitzaren gainean mintzatzeko.

Idazle trebearen argitasun eta erraztasuna erakutsi zigun Laphitzek: *Bi saildu euskaldunen bizia* izeneko liburuak baditu literatura balio handiak, hori normahik ikusiko du, eta alde horretatik ez du gaurkotasanik galdu batere. Loiolako eta Xabierreko bi gazteen bizitza egituratzeko modua, narrazio esti-

loa, historia kontatzeko maisutasuna lehenaldiko eta orainaldiko adizkiak behar bezala trukatzuz..., anitz gauza erran liteke horren gainean, betiere kontuan izanik ezaugarri horiek lotuago daudela literaturaren ñabardurarekin euskararen zuentasun eta egokierarekin baino. Uste dut ez den behar bezain bat baloratu lan hau alde honetatik. Erreferentzia behar luke izan, nire ustez, euskaraz idatzi nahi duen ororentzat. Mitxelenak ere, bere *Historia de la literatura vasca* lan ezagunean goraiatzen du haren hizkera dotorea, eta dio «narratzaile trebe eta bizia» dela. Nik ere, alde batera utzirik zer den kontatzen duenaren mamia (laudatzen dituen pertsonaien balioak, konparazione, psikologo bategen aztertu beharko lituzke, ez nik), estilo aldetik, irakurriago eta ederrago aurkitzen dut liburua.

Narratzen hasten delarik, iragana hautatzen du, ardurara orainaldira igarotzeko, behin narratu nahi duena testuinguruan ongi kokatu ondoren:

«Naierako dukia tropa hetarik baten aitzindari zen. Egun batez gortherat heldu dire Napleseko armadaren berriak eta jakiten dute Loiolako semek han indar handiak egiten dituztela. Iñazio orduan bere bizi funtsgabekoaz ahalgetzen da eta bere oseba Naierako dukia othoizten du zombait soldado eman ditzon gerlarat heiekin juaiteko. Gerlarat juanez, gerlan bere indarra erakutsiz nahi luke Iñaziok maite duenaren bihotza hobelki hatzeman» (5. or.)

Gure artean gaitzetsi izan da, segur naiz arrazoiarekin, gatzelaniaz «presente histórico» deitzen den narrazio estiloa. Hori ez da, omen, euskararena. Euskarak ez du, nonbait, holako estilorik maite. Horrekin bat heldu naiz ni ere, baina ez naiz gai, egia erran behar baldin badut, horren mugak non para-tu behar diren errateko. Ikus dezagun ondoko bertze testu hau:

«Jakintsun handi zen Jainkozko gauzetan, bainan hortan baratzen zen haren jakitate guzia. Zer eginen du beraz? Hogoia eta hamar urthetan hasiko da latinaren ikhasten. Iñazio behar zen lan horri lotzeko; ezik liburuak hastio zituuen, ezin ikhusu zitazken: bainan Jainkoaren loriak hala galdatzen baitu, urtheak eta urtheak ez zaizko sobera izanen liburuen erdian» (69. or.)

Hor ikusten dugu iraganarekin hasten dela («jakintasun handi zen», «baratzen zen»), baina berehala iragan dela idazlea etorkizunera («zer eginen du», «hogoia eta hamar urthetan hasiko da»). Ondoko esaldia, ordea, eta beti pasarte berean ari naiz, berriz ere iraganean da («Iñazio behar zen lan horri lotzeko»). Azkenekoz, berehalaxe segidan, paragrafoa orainaldian eta etorkizuneara akitzen du («...galdatzen baitu», «urtheak ez zaizko sobera izanen»). Honek erakusten du, ene ustez, narrazio kontu hauetan badirela, izan, ongi aztertu behar ditugun bideak. Baina lehentxeago erran dudana gisan, hauek literatura arazoak dira, euskararenak baino gehiago, eta ez zaituztet arrazoibide hauekin enoatu nahi. Alde bat utziko dut, haatik, gaia.

Nadin itzul istant bat lehen aipatu dudana eta praktikan ibiltzen dugun batura ere horren ezaugarrietara. Erran dut gure artean nagusitu dela, berdin delarik bakoitza gure etxean edo adiskideekin zer euskalkitan mintzo ga-

ren, nagusitu dela, diot, eredu bat bakarra, oro har. Noizetik noiz testuren bat agertzen bada ere gainerakoetatik urruntzen dena, arruntean eskribitzen ditugunak elkarren iduriak dira. Berdin da non sortu garen, non ikasi dugun, zer euskara mota edan dugun etxean, eskribitzeko orduan antzekotasun handiak ditugu gure artean. Beti elkarretarat egiten dugu, hainbertzeraino, non, zail gertatzen baita ikaragarri jakitea zein den bakoitzaren jatorrizko euskalkia, bertetik ere euskalkiz betea den hizkuntza honetan. On litekeela, adierazi nahi izan dut, batzuetan bihotza eskatu gaituen berdintasun homogeen hori noiz-behinka trenkatzea, batasuna bera hautsi gabe horregatik. Ezik batasunak bide bat baino gehiago badu. Eta denak ibili behar dira. Hobeki dugu hori eginik. Hori da hizkuntza aberasteko bidea. Zeren hizkuntza idatzia nekez aberastuko baita funtsean oinarritzat eredu estandarra hartzen badugu eta txokokeria batzuk sartzen han-hemenka, atzenduz aldi berean badirela bertze bide batzuk aski erabilgarriak izan daitezkeenak.

Frantzisko Laphitzek erakusten digu aukeran ditugun bide horietako bat. Ez da Laphitz, inondik ere, den bakarra. Jainkoari eskerrak, eta beharrik hori hala dela, badira eredugarriak diren idazleak mintzo guztietan. Baina hemen, erraz konprenituko denez, Laphitz hartuko dut aztergai. Zein den aberats erakutsi nahi nuke lerro hauetan.

Oroitzen naiz behin zerbaiten programa bat-edo eskuratu zidatela, egitarau bat erdaraz erran nahi dut, haren euskal bertsioa egin niezaien: han erraten zen zerbait egin behar zela asteazkenean, eta nik «asteazkenarekin» itzuli nuen. Norbaitek hots egin zidan: «Aizu! hor ez da egokiago «asteazkena» jar-tzea?». Jakina, harentzat ez zegoen desberdintasunik «asteazkena» eta «asteazkenean» hitzen artean. Ez da bakarra: ezik ardura ikusi ditugu denda eta erakusleihatuan «asteazkena itxita» bezalakoak, ez dakigula ongi zer den asteazkenean ixten dena, asteazkena bera edo denda. Bada, hori: «asteazkenarekin» jarri nuela, niretzat aski arrunta den moldea hautatuz. Laphitzek hasieratik ibiltzen du sozietiboa denbora adierazteko, berdin aditz izenekin ere. Hola dio liburuaren lehenbiziko lerroan:

«Ikhustearekin bi Heskualdun, mundua, debrua, eta beren burua garhaiturik, lorios zerurat igaiten, zonbat Heskualdun lehiatuko othe gare heier jarraikitzerat?» (Bi hitz, sarrera)

Eta hauxe da liburuaren azken esaldia:

«Bainan Loiola galtzearekin lurrean, zer arartekoa ez dugu irabazi zeruan?» (251)

Tartean baditu bertze aunitz, zenbait kasutan ez bada argi perpausak denborazkoak edo moduzkoak diren:

«Atzartu zenean hirriskuz kanpo zen. Sukharrak uztearekin eta indarrak itzultzearekin khendu zioten zangoko lothura» (15)

«Iñazio ikhustearekin semea jin zitzaion bururat, eta ustez hura iduri zon-
bait zen, lothu zitzaion lapharra bezala» (56)

«Berrogoi eta hamahirur egun eman zituen eri, eta sendatzen hastearekin le-
hengo urhats guziak hartu zituen» (75)

«Jakitearekin bandera bereko soldado zirela, nigarrari eman ziren bozkarioz»
(138)

«arrotza ikhustearekin, bozkarioz jauzi egiten du, eta, lasterka jautsirik, An-
toniori erraiten dio» (143)

«Heldu zela entzutearekin, jende oste bat juan zitzaion biderat» (207)

«Goarat abian zela jakitearekin, girixtino berriak, errege buruan, milaka juan
zitzaizkon, agian beren othoitzez eta nigarrez atxikiko zutela» (222)

«Biharamunean, Iñaziok Laurentz ikhustearekin» (235)

«Bainan Loiola galtzearekin lurrean, zer arartekoa ez dugu irabazi zeruan?»
(251)

Holakoak dira nik hemen euskara batuan idazteko eredia aberasteko al-
darrikatu nahi nituzkeen bideak. Gehien-gehienek «zortzigarren semea izan
zuela ikustean» edo holako zerbait idatziko genuke, hain segurki, eta gutitan
pentsatuko genuke aditz izenak ibil ditzakegula, sozietiboan, denborazko per-
pausen balioarekin. Baina Laphitzek badu bertze bide bat, bertze molde bat
ederki sartzen dena batasunaren bidean:

«Zortzi garren seme batez erdi zela ilkhustearekin, doña Marinak zerurat al-
txatu zituen begiak, gero bere senharrari behatzen ziola erran zion» (1)

Ez al dio honek xarma ematen eredu neutro horri? Ez ote du honek ba-
tasun eredu hori aberasten? Eta ez diot nik hau dela ibili behar den bide ba-
karra, ez: gogora ekarri nahi dut, hau ere ibiltzea komeni dela. Zergatik ez
hautatu bide hau ere? Zerentzat ez ibili euskarak, han eta hemen, erakutsian
uzten dizkigun hautuak? Zerendako ez izan begiak eta belarriak erne?

Bekatu litzateke EGA azterketa batean izen sintagma datiboan jarri eta
adizkia datibo markarik gabe: «eman du lagunari», demagun. Ez da holakorik
azaltzen euskaltegietan. Pentsatzekoa da zuzentzailearen begi zorrotza bereha-
la ohartuko zaiola horri, eta kolore gorriarekin markatu. Baina, ongi dakigu-
nez, holakoak aski arruntak dira zenbait euskalkitan. Laphitzek ere usu ibil-
tzen ditu:

«Frantzian bai eta Espainian ere aitoren seme batek odola zor du herriari» (3)

«Gobernadorea bethi bere buruari lothua zagon eta nihorri ez zen ohartzen» (6)

«Hitzeman zuen Nafarroa sei ilhabeteren buruan itzuliko zuela bere nausi
zuzenari Henri Albretekoari» (7)

«Aphez baten eskasian gerlako lagun bati kofesatzen da, hiltzerat baloha bezala» (11)

«Gerlako lagun maitea, orai adio behar dugu elgarri erran» (13)

«Premu Jauna, premuari zor dudan errespetu guziarekin erranen darotzut» (17)

«Artetan hau erraiten zuen bere buruari» (21)

«Jauna egia da soineko aberats batzu eman dituzula Mont-Serrateko pobre bati?» (36)

«Ene Aita, erraiten dio Inaziok, zure komentuari ez naiz ardit bat gostako!» (62)

«Jauna, ene soinekoa irriegangarria da, badakit. Bainan gizon gaixo bat hazteman dut erdi estalia eta ene soinekoaren erdia hari eman dut» (95)

Jakina: gehiegikerietan erortzeko arriskua badugu, baina nik ez dakit zertaz ez ditugun holako itzuliak ere ibiltzen, horrek ere (ez horrek bakarrik) bizitasuna emanen bailioke testuari. Baina beldur baiz, naski, jendea erosoago sentitzen den «zor dio herriari» bezalako forma kanonikoen ibiltzen. Alta, uste dut nik batean «erran dio lagunari» eta bertze batean «erran du lagunari» jarzepak ez liokeen kalterik ekarriko euskarari.

Laphitzek kontatzen digu Inazio Avila alderat bidali zutela, izeba baten-gana, «zoinak altxatu baitzuen ama baten artarekin» (3). Horiek dira, erlatibo mota horiek, baztertuxeak izan ditugun egiturak, batasuna egiten hasi ginenean ezinka bezala ibiltzen genituenak, gisa batean, non bai baitzirudien baimen eske bezala genbiltzala, ez baikinena atrebitzen erdal egitura horiek, egitura «erromaniko» deitzen genituen horiek, hain arruntak izan direnak euskaldun idazleetan, batasun ereduari ibiltzen. Ez da erran beharrik eskubide osoa dugula, eta batzuetan beharra ere, euskarak deusik ere galdu gabetanik horregatik, egitura horien ibiltzeko. Horrek ere ematen dio xarma, kolorea eta indarra hizkuntzari. Eta horrek ere ematen dio aukera eta desberdintasuna, batasunari uko egin gabe, hizkuntza eredu batuari. Badut uste aholku hauek meutzen zizkigun Frantzisko Laphitzek bere lan ederrean.

Aipatzen ari naizen puntu hauek ezagunak dira, ez naiz horretan batere berezia. Ezagunak dira, bai, eta gramatika batzuetan, ez denetan, aipatuak ere. Gauza bat da, zernahi gisaz, ezagunak izatea, eta bertze bat, aski desberdina, euskara eskribituan hola, laxo-laxo, ibiltzea, eta modu naturalean, nik nahi nukkeen moduan, ibiltzea. Hori, naski, bertzerik da. Edo «noski» erran behar nuen hemen, eta ez «naski»?

Iparraldean arrunta den genitiboa, absolutiboaren tokia betetzen duela, arin eta erraz ibiltzen du gure idazleak:

«Nafarroko Gobernadorea ene oseba da. Iruñe bidean da zuen gudukatzerat heldu» (12-13)

«Hori ene egitekoa da; zuen egitekoa da niri trunpilo horren nolezpait ek-hentzea» (16)

«Lanaren errexkiago egiteko barberrak Iñazioren estekatzen hasi ziren» (17)

«Hezuraren phikatzen abiatzean» (18)

«Xede horren haren burutik khentzeko alfer izan ziren othoitzak eta nigarak» (50)

Aise ohartuko gara azkeneko adibide horretan ez bakarrik duela idazleak genitiboa arruntean akusatiboa ageri den tokian paratu, baizik aditz izena eta haren osagaia bereiz ageri direla ere: «xede hori haren burutik kentzeko» gehienez ere «haren burutik xede horren kentzeko» edo holako zerbait eskribituko genuke, beldur, eta ez hain aise «xede horren haren burutik kentzeko». Ez ote genituzke guk ere noizetik noiz holakoak eskribitu behar gure lanetan? Eni, segurik, arras ontsa zait hori. Badira, pentsatzekoa denez, bertze anitz adibide:

«Nork daki ez othe den Luterren dizipulu gorde bat, gezurrez gure bethatzerat ethorria?» (83)

«Iñazioren etsaiak ez zauden geldirik; ahal guziak egin zituzten Iñaziori bere lagunen khentzeko. Ezin bertzez, azkenean huna zer buru jo zuten» (106)

«Mezaren emaiten ari zen batez, Aita Nikolasek su gar bat ikhusi zion buruaren gainean. Ustez su zuen, laster egin zuen su hiltzerat. Ez zen su lothua Iñazio, haren begithartea zen su garrak bezala argitzen eta distiatzen zuena» (191)

Badakit ongi aski gogoia nola dugun, hala dugula idazten, hala ditugula gure hitzak elkarrekin kateatzen. Ordea, batasun eredu aberatsagoa ezagutu nahia naiz, irakurri nahia naiz, hola, pixkaka, nekea bada neka, emeki bada emeki, gure burua astin dezagun eta denen aitzinean erakutsi euskarak duen edertasuna ez dela pareta estu batzuetan bildu beharrik. Horretarat egin behar genuke, noizetik noiz bederen, aldi txartuan eroriko garen beldurrik izan gabe. Ez dugu den gutxieneko arriskurik horretara, ene ustez.

Paregabea da Laphitzen erraztasuna esaldiak egiteko, ardura aditz laguntzaileak estaliz, ez bakarrik emendiozko juntadura egituretan, baina bertzenaz ere. Begira hemen adibide batzuk, zer indarra duten:

«1521an, Maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da zaldidun bat Iruñako karrketan eta gobernadorearen etxean sartzen» (6)

«nik oinhaze hauk jasaiten ditut gortheke andren begietan deus gal beldurrez» (20)

«Iñazio estakuru bilha zabilan Loiola aldebat uzteko; Loiolan egoitza luzatuz beldur zen anaiak sobera erran» (24)

«Beilariek ezagut beldurrez, Iñazio goizik athera zen Mont-Serratetik» (34)

«Auzo-aphezak pobre haren errana ez nahiz sinhetsi, preso ezarri du ni itzul artean» (36)

«Eta gero, Loiolako izena, ene arbasoer hanbat gostaia, nik zer dretxoz dabilat oinen pean?» (39)

«Iñaziok, urgulutan sar beldurrez, bethi gogoan zabiltzan bere bekhatuak» (42)

«Bera itsu eta nihondik ez argirik heldu» (43)

«Fedeak erakutsiko daut bidea, Esperantzak emanen hazkurria, Karitateak indarra» (51)

«Don Juanek khurutzeфика besarkatzen du eta heriotzearaino berekin ekhartzen» (77)

«Lan borthitz eta soberakin horrek buru guzia zoratu zion eta liburuentzat higuintza berri batez bethe» (79)

«Iñazio Loiolakoa durdurutzen da. Haren zainetan lehengo odoletik bada oraino xorta bat, eta odol hark noizetik noiz irekitzen baitio, aphur bat ixilik egon ondoan galde egileari erraiten dio: «Hobe dugu naski hortan baraturik.»» (94)

«Kargudun hau bere eginbidetan lazoskoa, billartean ari dela khausitzen du» (117)

«Iñazio Loiolakoak laster beretu zuen Piarres, bainan Franzizko nihondik ez zezaken bil. Iñazio zonbatenez amultsuago, Franzizko hanbatenez bihurriago» (124)

«hirur egun oso nola iragan zituzten ahamenik jan gabe; nola etzaten ziren kanpoan, zerua atherbe, lurra ohatze» (168)

«Penitentzia salbagarri bat egin ustez, suian sarthu zuen eskua, eta erretzerat utzi» (236)

Batasun ereduan baztertuxe ditugu egitura batzuk. Hola, norbaitek «kalean mintzatzen hasi ziren etxe txar bati buruz» eskribitzen badu, berehala pentsatuko dugu etxea dela solasgaia, eta zalantza izango du batek baino gehiagok zer dela eta ote den etxea txarra edo ona, noiz eta Laphitzen testu hau atzematen baitu:

«Jaun gaztea karrika izkin batean jarri zen, etxe txar hari buruz» (85-86)

Badakit ez dela Laphitz idazle bakarra holako egiturak ibiltzen. Baina bera dugu erakustun gaur, eta horregatik ekartzen dut hona haren maisutasuna. Hor berehala ohartzen gara gauza bati, «zerbaiti buruz» horrek bertze adiera bat duela, gure eredu estandarrean ohi ez bezalakoa. Laphitz karrika batean jarriko baitzen etxe txar bati buruz, herriko mutikoen gainean mintzatzen. Gu, ordea, kale batean jartzen gara, etxe txiki baten aurrez aurre, herriko mutikoei buruz hitz egiten. Hona adibideak:

«Harrazu kuraie, diotso Iñaziok, emazu hor gorphutz hil baten gainean ari bazine bezala.» (18)

«Ez premu Jauna ez, ez nau ene gogoak urrunegi eremanen, ez izan ene gainean holako beldurrik» (24)

«bere bekhatuen gainean minki nigar eginez» (33)

«Asko solhas aditu dut zure gainean» (84)

«Zeren gainean mintzo zare gehienik?» (93)

Ez dakit nik zergatik, batasunaren bazterretan beti aditu izan dugu, batzuetan pentsatu ere, ongi hornitutako «etxerako», «etzirako» eta «lanerako» formak aberatsago-edo direla haien pareko ditugun «etxeko», «etziko» eta «laneko» bezalako egitura apaletsiak baino. Hainbertzeraino, non nik neronek ere neure etxean ikasiak ere atzendu behar izan baititut batasun bidean, horiek ez zuten-eta, batzuen iduriz, dotoretasun aski eredu landuan. Hala ere, Laphitz ederki konpontzen zen horiekin, eta guk ere ez genuke arazorik izan behar haiez baliatzeko batasunari kalte gehiegi egin gabe:

«Amak beldurra zuen bezala, haur haurretik su gehiago zakarren Iñaziok harmetako liburutako baino» (2)

Ziprerat jautsi eta berheala, hartu zuen bertze untzi batek, eta Jafarat ereman Agorrilaren azkeneko. Buruilaren lauan Jerusalem zen (61)

«Hamabortz urhe harrarazi ziotzan, eta oihal bero batetarik estomaka gaineko» (64)

«Aski jakinik badut; berriz ethortzen deneko, horra ene izena eta ene egon tokia» (86)

Badugu non ikusi eta non ikasi. Gure eredu estandarrean nagusitu da «zergatik» ibiltzea galderetan, eta horri «-lako» menderagailua daraman adizkiarekin erantzutea, berdin dela hor ageri den kausa edo dena delako horrek zinez kausa adierazten duen edo azalpena bertzerik ez den. Ez ditut ekarriko hona «kaleak bustiak daude, euria egin duelako» eta «euria egin du, kaleak bustiak daudelako» perpausek erakusten diguten paradoxa. Ez naiz horretaz ari orain. Baina begira: Laphitzen testuan «zergatik», «zerentzat», «zeren», «zertarik» eta «zertaz» ikusiko ditugu gure «zergatik» soil horren tokian. Eta erantzunean «ezik» lokailua arrunta da. Zer esan ez «bait-» eta «-laketz» menderagailuen gainean. Horiek arruntak dira, ez dagoela batere argi bien arteko desberdintasuna, bigarrena ere aski azalpenezkoa denez:

«Migel Nabarrok Zabier maite zuen, batetik maithagarria zelakotz, bertzetik zorren estaltzen laguntzen zuelakotz» (132)

«Bere laguner aita on baten solhasak atxiki ondoan, eta Piarres, aphez zelakotz, buruzagitzat utzi ondoan, oinez abiatu zen Heskual herrirat» (140)

Hauek dira hautatu ditudan bertze adibide batzuk:

«Frantses armadako aitzindariak miresten dute hoinbertze kuraie eta holako gerlaria zeren ez den Frantsesa deithorutzen dute» (11)

«Zerentzat ez dut eginen sailduak egin dutena?» (21)

«Mahometanoa ahal zare? hala dio ezik zure arropak» (30)

«Ah! zuk saildua galdatzen duzu; hemen ezik hala deitzen dugu» (104)

«Haur huntaz irri egiten duzue? gaizki hori; ezik itxuxia badu ere gorputza, ederra du arima, eta egun guzietz edertuz juaen zaio. Apheztuko da Martin, eta denborarekin herria ohoratuko du bere bertutez eta obrez.» (154)

«Ez, Jazinto maitea, ez; zertarik iduritu zaizu etsitu dudala?» (208)

«Bainan nihor ez da zure entzuterat ethorriko. Ez duzu zeren has» (150)

Gure «etxe asko» horren ordeztarrak ditu Laphitzek arras «asko lekuetan» (4), «asko pobreren» (32) eta «anhitz haurren» (77) bezalakoak, zenbatzailea izenaren aitzinetik hartzen dutenak. Eta, jakina, aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko ordena aldatzea arrunta da ere:

«Ez nau oinazeak izitzen, maingu gelditzeak nau izitzen» (17)

Bazekien bai, Laphitzek egun hala-holako euskarari ibiltzen dugun «abiadura handiko trenari» zerbait izatekotan «lastertasun handikoa» dela:

«Entzunik izurritea baratuxe dela Barzelonan, Barzelonaterako abiadura hartzen du, handik urez Lur Saindurat juaiteko» (50)

Baina egin dezadan hemen geldialdia. Badira egin nitzakeen bertze hainbertze ohar. Baina aski da gaurko. Hitzaldi hau antolatzen eta taxutzen hasi nintzelarik, ez nekien, egia erran behar baldin badut, nondik heldu. Banekien eman nahi nuen mezua zein zen, banekien zer mezutu nahi nuen (Laphitzen hitzak ibiltzeko), baina ez nuen nahi betiko azterketa egin, jendeak holakotan aspertuxe akitzen baitu. Hartako aukeratu dut bide bikoitz hau: espresuki adierazi dut batzuetan, jatorrizko adibideak erabiliz, nolakoak ziren Laphitzen euskararen ezaugarriak, haren testuan sartzea egin ondoren. Baina, bertetik, diskurtsoa bera antolatu dut halako moduan non saiatu bainaiz diskurtsoaren barnean zuzenean sartzen batasuna bertze modu batera ulertzeko ereduaren anitz ñabardura. Gure «atea giltzarekin itxi» ilupa horretatik (ez berez ilupa, baizik ezintasunean bakarra egitera iritsi baikara) pasa gaitezen «atea giltzatzera», «ateari giltza ematera» edo «atea gaketzera». Hain segur ere, Laphitzek berak aise hobeki eginen zuen lan hau, maisutasun aparta baitzuen hizkuntzaren ibilerarekin. Uste dut badugun non zer ikasi. Hori dela eta, azkensura ailegaturik, «munduari erakusteko deusetako ez denik ez dela» erran zuen haren hitzekin akituko dut mintzaldia, ikus dezagun zein polikino lotzen zituen hitzak:

Orai artean distiatzen zuen haren buruak, orai ez da orraztatzen ere. Orai artean hein ederrean zagokan bizarra, orai nola nahi uzten du. Orai artean xuri ziren haren eskuak, garbi haren azkazailak, orai ez diote behatze bat ere emaiten. Orai artean gortheiko mintzaira zuen, orai jende xehearen mintzaira. Orai artean asko muthil bazituen, bera jartzen da orai erien muthil. Erien zauriak garbitzen eta lotzen ditu, eta naturalezak arrangurarik egiten badio, belhauniko jartzen da erien oinetan eta heien zaurier musu emaiten diote. Ez da hortan baratzen; orai artean athorra mehea ekharri du, orai zilizio garratz bat. Belhar luze eta latz batzuez egiten du gerriko bat, larru arrasean ezartzen duena. Azotea hartzen du egunean hiruretan. Ogirik beltzena janharitzat; ogi hura athez athe eskatzen du bere urguluaren zaphatzeko 37

Eska dezagun guk ere ogia, eta horni gaitezen, euskalkien aberastasuna erakusten diguten ate horietan. Segur naiz, hau egin dugunean, euskara milatan bortitzago izanen dela, eta gure eredu estandarra hanbatenaz ederrago zenbatenaz mintzaira guztiak, ez nolana, bistan da, ibiliago.

JANPIERRE ARBELBIDE IDAZLEA

Xipri Arbelbide

Egun biltzen gaituen Janpierre Arbelbide hil zen duela 100 urte. Garazin sortua zen, *Zaroko* herrian (1841-XII-20) Donibanetik kilometro bat eta erditan

Iturbidea etxean, elizako ondo ondoan.

Ate gaineko *harriak* erraten digu etxeko seme apez batek eraiki zuela harriz 1677an. Zurezkoa ote zen ordu arte. Bigarren *harriak* dio ekaitzak bota zuela etxea eta Etcheberry anaia apezek bereraiki zutela 1787an. Apez horietarik bat, Martin Etcheberri, Hazparneko erretore zen iraultza hasi zelarik. 1792an, besteak bezala ihesi joan zen. Zenbait denboraz Luzaiden egon zen.

1794tik 1796rat Iparraldeko 221 haur *bataiatu* zituen hor, batzuk Garruze edo Iholditik jinak. Oinez. Iturbidean ere egon zen gorderik, ezkaraz gaineko gela handian meza ematen zuela, etxeko beste bi apezek bezala. *Erlesionea* liburuan Arbelbidek kondatzen digu hori. Apez horrek zioen, bi mende hartan, beti izan zirela apezak Iturbidean. Gero ere izan dira, ez baita harritzeko giro horretan.

Martin Etcheberriren arreba, Graxiana, ezkondu zen Gillome Arbelbidekin. Hau Jatsu Arbelbidetik heldu zen.

Gillomeren arraseme bat, Jan Battitt, apeztu zen, Santandreko erretore izan eliza honek, 19. mende ondarrean kendu dizkioten dorreak bazituelarik oraino. Katedraleko kalonje bururatu zuen. Honen iloba bat ere, Martin, apeztu zen. Domintxineko erretore zen 1848an bigarren errepublika sortu zelarik. Honen gain izan zen herriko askatasunaren zuhaitza benedikatzea eta mintzaldia egitea. Errepublikarra zen beraz. Gure Janpierre, honen iloba dugu.

Martin eta Janpierre ikasketak, Santandereko osabak pagatu zituen. Gure Janpierre Baionan ibili zen lehen mailako eskolan, Lasaleko fraileetan, gero ordena honen buru izan behar zuen Irlide frailea zuela irakasle.

Ikasle ona zitekeen zeren eta Larresoroko seminarioan sartu zen seigarrenean eta Eguberri, bosgarrenerat pasatu. Maisonnave kalonjea zuen zu-

zendari. Gero seminario handia egin zuen Baionan. Duela orain ehun urte, Estatuak hartu zuen seminario hori, gero botatzeko eta Lahubiague etxe gunea egiteko.

45 urtez Baionako apezpiku izan zen Mgr Lacroix-k apeztu zuen, (1867-VI-15). Garai haietako katedralak ez zuen oraino dorrerik. Euskaldunak joaiten ziren Ameriketara. Urtean bi milaz goiti. Horrek markatu zukeen.

Milafrangara izendatua izan zen. Urte baten buruan Hazparnera joan zen. Bigarren urtean jin zen Londaitzbehere. Biziki ontsa akomeatzen zen hau Arbelbidekin. Honek zuen eraiki Hazparneko eliza berria.

Hazparnen bazen misionestegia. Hor zen Irigoien apeza, Arbelbiden osaba amaren aldetik. Bai eta Bastres. Larresoron irakasle izana zuena. 1871an, Misionestetan sartzea erdietsi zuen apezpikuaren ganik, eta gerokotz kasik bizi guzia etxe horretan pasatuko du.

Misionestegian bazen apezgai gazte bat, osagarriz ahul baina diruz aberats, Bastidako familia on batetako seme bakarra baitzen, Mixel Caillava. 1872ko urtarrilean, Arbelbidek galdetu zion zer egin nahi zuen bere ontasunaz. Honek, nahiagoko zukeela osoan, obra on bati eman, ezinez eta eskuin eta ezker barreiatu. Arbelbidek erran zion, berak ere bazituela 21.000 libera norbaitek emanak eta aspaldiko ametsa zuela monastegi baten sortzea Eukal Herrian. Caillavak, bere dirua horretan sartzeko prest zela. Hoberik ere bazuela, etxeko bi misionest, frantxixkano edo jesuita joateko xedetan zirela: Bastres eta Duperou. Arbelbidek berehala bildu zituen biak, komentu baten hemen sortzera. Beneditarrak hautatu zituzten. Bera izan zen bi aldiz La Pierre qui Vire-ko komentuan 1872 eta 1873an. Ondotik Bastres eta Duperou sartu ziren fraile Ardans batekin.

Arbelbidek zituen urrats guziak egin apezpikutegiaren baia erdiesteko, *Frantxixtegi* bikario nagusia ararteko. Baina bera ez zen beneditano sartu. Nahi zuen Hazparneko misionestetaz kongregazio bat egin. Ameriketako Euskaldunetara joateko.

Lehen fraileak nobiziadua egiten ari zirela Caillavarekin erosi zuen Be-lokeko ontasuna; lehen komentua eraiki eta 1875an, izan zen fraile berrien sartzeta buruileko 9an.

Konfidantza sortzen zukeen Arbelbidek zeren eta egundainokotan 80.000 libera eman zizkion, aldi honetan, Xilo Barkoxtar kalonjeak, obra on bat egiteko. 1880an Maulen erosi zuen darteztarren jauregia bere 100 hektarekin. Horretarik ageri da zenbat balio zuen orduko libera batek. Gorri zurien borroka beroenean zen. Hemen, alde batetik Berdoly gorria *Le Réveil Basque* astekariarekin, xurien aldetik Etxeveryk sortzen zuela gero *Eskualduna*.

Eskola publikoetan katiximarik gehiago ez egitea erabaki zuten deputatuek, eta apezak beldurtu, hurrek ez ote zuten fedea galduko. Erremedioa, es-

kola katolikoak sortzea eta fraileak lehenak ziren horretarako. Lasaleko buru zen, juaixtian aipatu dudan Irlide frailearekin harremanetan sartu zen Arbelbide, Agerria eman zion eta nobiziadu bat sortu zuten hor. Ondoan zen *etxea* misionestentzat beiratu zuen eta hemen idatzi du bere lehen liburua.

Horien denen artetik misionek predikatzen zituen herrietan, bestek bezala eta gainera lehen liburua idatzi zuen 1887an, *Bokazionea* bere 460 orrialdeekin.

Lacroix hilik, 1880an *Ducellier* etorri zen. Honekin hasi zen solasean Arbelbide, ez ote zuten misionestek kongregazioa bat egin behar, botoekin, hasitapenean ziren bezala. Beren nobiziadua eta seminario handiarekin. Baina hau Besançoneko artxapezpiku izendatu zuten deus erabaki aintzin.

Etorri zen orduan Fleury Hottot 1888an. Bi urte gabe hilen zen zoritxarez. Honen ganik ardietsi zuen kongregazio izate hori, lehenago bezala misionek predikatzeko hemen berean bai eta, indar gehiago izanen zutelarik Ameriketako Euskaldunetara joateko, hau baitzen Arbelbiden kezka handietarik bat. 1889an egin zituzten lehen botoak misionest guziek, apezpikuaren aintzinean, uztailako 11an, Arbelbide zuzendari hautatu eta bozkatur.

Mauleko kolijioa bere gain hartu zuen eta berek, misionest izatea hautatu apezak izateko Hazparnen, eta ez, apezpikuak izendatuak, zenbait urterentzat, bere seminario egin zuen Mauleko kolejoan, orain *le noviciat* deitzen dutena, eraikitzen zuela.

Artetik Hazparneko *galbarioa* eraiki zuen Arroltzemendin, diru bat eskuraturik horretarako ere. Karia horretara egin predikuen bilduma duzue *Hazparneko galbarioa* liburua. Bururatzean, notekilako lehen kantika bilduma euskaraz, nota gregorianoekin, Jaret bere misionestak eginik. 1892koa da.

Fleury Hottot hil zen eta 1889an etorri Jauffret errepublikatzalea. Gobernuak zituen apezpikuak hautatzen, Napoleonen konkordatuaren ondorioz, hargin beltzez osatua baldin bazen ere. Jadanik hemen sartu aintzin apez zenbait gatzigatu zituen Jauffretek gobernuaren manuz. Apezak kontra jarri zitzaizkion apezpiku berriari. Ez zuen erretorerik aurkitzen parropia handienetarako, ez eta bikario nagusirik.

Intxauzpe bikario nagusi ohia, kanpo emana zuen Pariseren manuz. Honen kargurako hautatu zuen lehena, Arbelbide. Baina Gobernu frantsesak ez zuen onartu, baimenik gabeko kongregazio baten buru zelakotz. Izendatze horiek Gobernuaren baimena behar zuten. Lege berri batek kongregazioei manatzen zien, izateko baimen legala eskatzea eta bihi batek ez zuen hori egin. Arbelbidek ere ez, Hazparreko misionestentzat.

Azkenean seminario handian irakasle zen apez gazte batek hartu zuen kargua, Diharce hazpandarrak, Arbelbidekin batere ez baitzen ongi konponduko.

Arte horretan, 1890an, Arbelbidek idatzi zuen *Erlisioea*, 400 orrialdetako liburua.

1891an, Eskola berri bat sortu zuen Donibane Garazin, Beltzagi apez nagusiarekin eskuz esku. Ploermelgo fraileak bildu zituen lehen maila hartzera, bigarren maila aldiz Hazparneko misionesten esku, harri batez bi xori, bere apezgaiak ere hor saratzen zituela.

1896an plazaratu zuen *Igandea* 220 orrialdetako liburua. Bere kongregazio mamitzen ari zen. Seminario ttipi Maulen eta Maiorgan, seminario handi eta nobiziadu Hazparnen.

1889an, Intxauzpe bikario nagusiak Arbelbideri emana zion. Txileko apezpiku baten apez galdea. 1892an izan zuen Lapitzen lehen gutuna gai horretaz, Buenos Airesetarik. Apezpikutegiak ere Arbelbideri ematen zizkion handik etorri eskaerak. 1896an Jauffretek idatzi zion Buenos Airesetako apezpikuari, jakin arazteko ordu arte ez bazuen hango apezpikuen eskaerei erantzunik eman ahal izan, hazparne osatu zela: 15 apez eta berrogei bat apezgai bazituela. Apezekin apezgaiak ere igorriko zizkiola, horrela ez zutela soldadogorik eginen hemen. Baziren apezgaiak ere soldadogoa egitea erabakia zuen lege berri batek. Baina Frantziatik kanpo baldin ez zuten horrelako obligaziorik.

Arbelbide bera Buenos Airesetera joan zen 1897ko urtarrilean, Beltzuntz, bere lehen apezarekin. Jauffretek gomendiozko gutun goxo bat eman zien hango artxapezpikuarentzat. Han zegoela bigarren bat etorrarazi zuen, Mendiondo. Hau ere Jauffretek eman gutun batekin joan zen harat. Hango obra ongi finkatua zuela iduritu zitzaionean, bost hilabeteren buruan, itzuli zen.

Bordaleko portuan jaustean, Oziniri, bere apez-lagunaren gutun bat: *zato laster: Apezpikuak ez ditu gure 7 apezgaiak ordenatu nahi*. Ekain ondarra zen. Iraileko bederatzian apezpikuak jakinarazi zion Maulen ez zuela ikusi nahi. Hazparneko ez apez, ez apezgarik. Aski zutela diosesako seminarioetan sartzea. Ameriketako obra ere ez zela gehiago Hazparneren esku izanen. Arbelbidek bere apezgaiak Hazparnera etorrarazi zituen eta apezpikuak hori gaizki hartu.

Urriko lehen egunetan, Seminario handirako, inposatu nahi izan zion ezinezkoa zen programa bat. Hau ere hetsi beharko zuen. Kongregazioarenak egin zuen, bai eta Ameriketako euskaldunenak. Zuzendaritza bildu zuen. Aho batez erabaki zuten Erromara joan behar zuela, «exempt» izatea eskatzeko, zuzenenan Aita Sainduaren meneko eta ez apezpikuaren meneko.

Hilabete baten buruan itzulia zen lehen urratsak eginik han, alde horretara. Baina apezpikua haserre gorrian zen eta misionest guziei debekatu zien herrietan ibiltzea. Maiorgako fraile batek idatzi zuen:

Les Pères de Hazparren voulaient devenir congrégation de droit pontifical. L'évêque en fut si furieux qu'il supprima la congrégation.

Denak hor, geldi-geldia Hazparnen, jenderen mihiak alhan hasi ziren. Eskandala zen.

Arbelbidek horretan utzi zuen Erroman pausatu eskaera eta Argentinara joan, han zeuden Betarramistekin negoziatzeko denak ordena horretan sartzea, Betarramistetan izanez eginen zutela Ameriketako Euskaldunen lana. Arte horretan, ez dakigu noiz, misionesten zuzendaritzatik kendu zuen apezpikuak.

Magendie apeza zen hango Betarramisten buru. Hau ikusi zuen Lapitz lagun. Magendiek erdietsi zuen baimen hori. Bourdenne, zuzendari nagusiaren ganik eta honek Jauffreten ganik apez horientzat, Betarramen sartzeko baime-na, 1898an, ekaineko 24an. Salbu Arbelbiderentzat: konduak eman behar zituela eta Hazparne eta Maiorgako etxeak Diosesari utzi. Legez, bereak zeuzkan eta batere ez zuen horien Baionari emateko xederik. Betarrami eman nahi zizkion, hauek ez zutelakotz etxerik Euskal Herrian eta apez euskaldunak izateko, etxe horiek beharrezkoak zirelakotz.

1899ko urtarrilean Argentinatik joan zen Erromara. Sinodo batentzat han bilduak ziren apezpiku argentinarrekin sustengatu zuten Batikanon. Baina, azkenean Erromak eza ematen zion, Betarramistak, Hazparne eta Maiorgaren jabe izateari. Diosesarenak izan behar zuten.

Zer pasatu da gero? Diharce afera horretan errotik kontra zeukan bikario nagusia, etorri zen Erromara katedraleko erretorarekin, hautsi-mautsi bat egiteko apezpikuaren izenean. Hautsi-mautsiaren ondorioz Arbelbidek onartu zuen Hazparne eta Maiorga diosesari ematea eta, ez dugu ulertzen zergatik, ez zen Betarramen sartu, baina Baionako kalonje izendatua izan. Kongregazioko zazpi apez, botoak eginak zituzten 12 apezgai eta seminario tipiko 30 bat gaztetxo sartu ziren Betarramen, lau frailerekin, orotara 53; baina ez bera. Nihon, deus ez dut ikusi aldaketa hori esplikatzeke.

Gero, hil arte, denbora pasatuko du seroretan erretiro predikatzen. Lehen misterioa beraz zergatik ez den bera Betarramen sartu. Ez dut erantzunik; hipotesiarik ere ez.

Bigarrena zer pasatu zen Jauffretek. Lehenik uste izan dut, Argentinan zen lehen aldi, huts zerbait, egin zukeela, apezpikuaren esku zen erabaki zerbait bere gain hartu edo horrelako. Baina nihon ez da horrelakorik ageri. Apezpikuak Diharcekin erromara igorri zuen gutunean, zioen Euskal Herriaren ahalak mugatuak zirela:

Les ressources d'un pays ne sont pas inépuisables et cette petite région basque, qui compte à peine 145.000 habitants est déjà exploitée par une abbaye de bénédictins très prospère qui s'y recrute à peu près exclusivement et de plus par les Frères des Ecoles Chrétiennes et les frères de Ploermel qui y possèdent les premiers un noviciat, les seconds un alumnat.

Diosesaren geroa arriskuan ote zen, odol hustua izateko arrizkuan ? Jandak, Jauffret etorri aintzin, norbait hil beha egoten ziren apez gazteak, norapait izendatuak izateko. Jauffretek berak Larresoro handitu behar izan zuen, bai eta solairu bat gehiago eman seminario handiari. Ordenazioei doakienaz, hona datuak 1860tik 1910rat, hamarkadaka: 79, 84, 95, 103, 115. Hamarkadaz hamarkada apez berrien kopurua beti goiti zoan. Ez zen odol husteko arriskurik.

Gainera Hazparneko apezgaiak ez ziren diosesako seminarioetan sartuko. Hauetan urte saria pagatu behar zen, eta horren emateko gai izan. Hazparnen aldiz ez zen urte saririk eta Jauffretek Hazparneko apezgaiari proposatu zien diosesako seminarioetan sartzea *merkeago pagatuz*.

Azkenaren buruan, nago ez ote zen botere arazo bat. Garai haietako apezpikuak serora edo monja kongregazioen alde ziren. 19. mendean 340 emazte kongregazio berri sortu ziren Frantzian, Gizonezkoenak aldiz 51. Zazpi aldiz gutiago. Garikoitzek ez zuen Lacroix-ren baimenik erdietsi, bizi zeno, Betarra-me sortzeko, han, Betarramen. *Pendant 45 ans, il avait tout fait pour les torpiller*, idatzi du Lafittek. Pentsa gauza bera hemen, Baionatik 25 kilometrotan!

Gauza batzuk harritu naute. Zergatik mendekatu zitzairen ordenatuak izan behar zuten apezgaiari deus ikustekorik ez zutelarik arazo honetan, gainerat, kongregazioa bere meneko zuelarik, diosesako kongregazio bat zenaz geroz. Zergatik mendekatu zitzairen kongregazioko apezpei orokorki, Arbelbidekin baldin bazituen arazoak? Harritzen nauena oraino nolaz utzi zituen bet-betan, abandonatu, gehiagoko funtsik gabe, Ameriketako Euskaldunak; batere apezik gabe, apezak bazituelarik? Aski zuen zuzendari berria izendatzea eta kongregazioa bere lana egiten uztea.

Harritzen nauena oraino, zergatik ez dion behin ere Arbelbideri garbiki erran: hemendik goiti ez zarete gehiago kongregazio izanen, horrelako eta horrelako arrazoinen gatik. Bazter bideak hartu ditu, konprenitzera bortxatzeko iduriz. Menturaz noizbait, norbaitek argituko ditu gune ilun horiek.

Denbora laburregi nuen Vinson, Dogson,(biak gorriak) eta Azkue, Broussain eta beste euskaltzaleekin izan zituen harremanak aipatzeko, edo ortografia batuaz, Euskal Akademiaren sortzeaz idatzi duena. Abbadiaren lorejokoetan eta Euskaltzaleen Biltzarra eman behar zuen *Fédération basque* elkartearen egin duena. Zer den bere liburuen teologia. Nolako euskara duen eta horrelako. *Egan* aldizkariaren zenbaki berezi bat aterako da laster horiekin denekin. Eta bururatzeko hona Pabeko *Le Memorial* egunkarian idatzia izan dena hil delarik:

On rappelait cette carrière si fructueusement consacrée au service de l'Eglise. Le jeune séminariste si grave et si réservé sur lui-même, mais toujours prêt à aider ses camarades avec un sourire si bon qui appelait invinciblement la sympa-

thie. Le jeune vicaire à son premier poste, collaborateur d'un curé difficile à contenter (...) le cofondateur de l'abbaye bénédictine de Bellocq. (...)

Sa part dans la fondation des Frères à Mauléon, (...) ses efforts pour conserver aux Basques transplantés de l'autre côté de l'Océan le bienfait de la foi. (...) Et quand ses rêves, excessifs sans doute, ne purent se réaliser, comment aurait-on oublié la force de caractère qui lui permit de faire un silence absolu sur tout ce passé, et de vivre dans une situation amoindrie avec le même calme, le même visage souriant, la même bonté bienveillante envers le prochain; le même empressement à se dévouer à autrui.

Ez da horrelakorik idazten apez txar batetaz. Eta apez txar bat ez du kallonje izendatzen apezpiku on batek.